

-Gipuzkoa mugako herrietan, trumoi hotsa entzutean esan ohi da: «Han, goiko Manuel boletan». Baina Gipuzkoako Goierri partean, oso ezaguna dugu Eguberrietako kanta hau:

*Artzai buru zuri bi  
Antton eta Peru,  
Belengo portalera  
etorri zaizkigu;  
sartu dira barrena  
Manueltxo gana,  
presente egin diote  
arkumetxo bana.*

Bestalde, gure haurtzaroko Eibarren, Gabon inguruan kantatzen genuen beste hona hau:

*Astelena, martitzena,  
eguaztenian,  
zozuak kantatzen dau  
Manueltxonian.  
Ogixa jan ta hil,  
artua jan ta piztu,  
biba Manuel, txistu!*

Guk zentzu guti aurkitzen genion, baina zerbait misteriotso gordetzen zuelako edo gogozko zitzaigun Eguberrietan kalez kale edo non-nahi bertso hori errepikatzea.

Egia esan, zozo eta eper kanta, berriemaile bezala azaltzen dira eibartarron folklore zaharrear; zori oneko berri emaile gisa. «Zozuak kantatzen dau Arrate ballian...», eta «Eperrak kantatzen dau Arrate ballian...», esanaz hasten diren koplak lekuko. Ikus *Odon Apraizi Omenaldia* (1981) deritzan liburuko 336. orrialdean.

Zoriona, bere etimologiaren zentzuz, xori (txori) onetik datorrela dirudi. Honek bedonek ere erdarazko *pajaro de buen*

MANUELTXO.—Maiz entzuna dugu ijito jendeak eta Espainiako zenbait tokitan, bereziki hegoaldean, Jainkoari eta batez ere Jesus Haurrari, Manuel izena ematen diotela. Baina garai batean Euskal Herrian bertan ere hala ez ote? Adibidez, Bizkai-

*agero*-rekin badu zer ikusirik. Gure herrian ohitura zahar-  
koa da ezkongaiak bilatzeko Arrateko gurutzari hiru buelta  
ematea. Baina han bueltak eman eta begiak eta bihotza nora  
eroan ez dakitenentzat, erronomia egunetan maiz entzuten da  
panderojotzaileen ahoetatik kopla hura: «Eperrak kantatzen  
dau Arrate ballian, neskarik ederrena San Pedro aldian». Era  
hortara eskongaiaren bilaketaz adibiderik anitz bada gure fol-  
klore zahar hortan eta zenbait berri ematen da *Iker* — 2,  
Piarres Lafitte-ren omenezko liburuaren 854-857 orrialdeetan.

\* \* \*